

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Andoaingo Udala

Ayuntamiento de Andoain

2018





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa	11
III.3 Langileria.....	11
III.4 Kontratazioa.....	12
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak	12
III.6 Bestelako alderdiak.....	13
IV. FINANTZAREN ANALISIA	14
V. URTEKO KONTUAK.....	17
ERANSKINAK	21
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarrria zaion legeria.....	21
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	21
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak.....	22
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	23
A.5 Langileria-gastuak.....	26
A.6 Ondasun arruntetan eta erosketa eta zerbitzuetan gastuak	28
A.7 Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	30
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	31
A.9 Inbertsio finantzarioak, zorpetzea eta kontingentziak	32
A.10 Kontratazioaren analisisa.....	33
ALEGAZIOAK	35



ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN	41
II. OPINIÓN.....	42
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	42
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.	42
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	44
III.1 Presupuesto y contabilidad	44
III.2 Ingresos y recaudación.....	45
III.3 Personal	45
III.4 Contratación	46
III.5 Transferencias y subvenciones.....	47
III.6 Otros aspectos.....	47
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	48
V. CUENTAS ANUALES	51
ANEXOS	55
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable	55
A.2 Presupuesto y sus modificaciones.....	55
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	56
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos	57
A.5 Gastos de personal	60
A.6 Gastos en bienes corrientes y servicios e inversiones	62
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	64
A.8 Deudores presupuestarios.....	65
A.9 Inversiones financieras, endeudamiento y contingencias.....	66
A.10 Análisis de contratación.....	67
ALEGACIONES	69



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

ADIF	Trenbideetako azpiegituren administratzailea.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Andoaingo Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrek honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Andoaingo udalerriak 14.618 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1ean. Udalak honako hauetan parte hartzen du: Tolosaldeko Mankomunitatean (hiri hondakin solidoak kudeatzen ditu), Tolosako eskualdeko hiltegiaren kudeaketarako udalerrien mankomunitatean eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioran (uraren hornidura kudeatzen du eta goi mailako sareko saneamendu zerbitzuak ematen ditu). Udalak erabaki zuen 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin Allurralde Kirol Patronatua erakunde autonomoa desegitea eta haren aktiboak, pasiboak eta langileak Udalera gehitzea.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Kiroldegia kudeatzeko laguntza zerbitzuak, Allurralde Kirol Patronatuak esleitutakoak, eta tributuen diru-bilketa zerbitzuak 2018an, hurrenez hurren, 603.671 eta 68.950 euro kostua izan zuten. Zerbitzu horien kontratuak, 6 urtetarako esleitu zirenek, 2016 eta 2017an amaitu zuten indarraldia. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu ditu, derrigorrezkoa baita lizitazio berri bat abiaraztea (ikus A.10).
2. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu zituen 7 zerbitzu kontratu txiki modura izapidetzean prozedura ireki bitartez esleitu beharrean; kontratu horiek 2018an 544.011 euroren kostua eragin zuten (ikus A.10).

Epaitegi honen ustetan, Andoaingo Udalak, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Andoaingo Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUZKOA	ONDAREZKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	ONDARE GARBIA
A.4 Udalaren aldeko 2018ko UFFren likidazioa, 2019an erregistratua	570	570	-	570
A.4 GLL dirulag. ordaink. osagarria-likidazioa eta etxez etxeko laguntza 4. hiru hil...	82	82	-	82
A.4 Dirulaguntzagatiko sarrerak: ondarean oker erregistratua eta finantzaketa-desbideratzearen zuzenketa	932	-	806	(806)
A.6 2018ko gastu aitortu gabeak: Arrateko frontoia zaharberritzea	(366)	366	366	-
GUZTIRA	1.218	1.018	1.172	(154)

2. Udalak ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehakapenik, ez amortizaziorako zuzkidurarik egiten. Hori dela eta, ezin jakin dezakegu Aktibo ez arrunteko saldoek, 71 milioi euro, aktiboaren 2018ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Andoaingo Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2018ko ekitaldirako aurrekontua Udaltzarak urte bereko otsailaren 22an onetsi zuen; ordea, arautegiak urtea hasi aurretik onestea behin betiko aurreikusten du. Aurrekontuaren likidazioa eta Kontu Orokorra 2019ko maiatzaren 13an eta irailaren 26an onartu ziren, hurrenez hurren; ordea, martxoaren 31 eta uztailaren 31n onartu behar dira.
- Honekin baterako kontuek erakusten dute 451.924 euroren finantzaketa-desbideratze bat egon dela 2017 eta 2018an Beterri-Buruntzako eskualdeko 5 udalek egindako ekarpenengatik, ekonomia eta enplegua sustatzeko zenbait programa elkarrekin finantzatzeko (ikus A.4). Likidazioak onartu gabe zeuden txosten hau idatzi dugun datan, izan ere programen egikaritzea sistema osagarri batekin kontrolatzen da, kontularitzako erregistroekin berdinkatu behar dena. Arazo hau saihesteko kontabilitateko sistema erabil liteke, programa hauei aurrekontuko kontu-sail berariazkoak esleituta.
- Udaltzarak onartu zuen gastuen alde aurreko fiskalizazio mugatua egitea, zehaztu gabe organoaren eskumenaz gain egiaztatutako beharrek alderdiak eta ea kreditu egokirik bazen. Udaltzaren erabakiak plantilla batzuk jasotzen zituen, dirulaguntza eta langile-gastuetan garatu gabe zeudenak.
- Udalak 342.779 euro erreklamatu zizkion ADIFi 2017an Andoaingo geltokian obrak finantzatzeko hitzarmen baten likidazio kontzeptuan. Bestetik, 2018an Udalak obrak egin zituen hirugarrenen kontura 103.828 euroren zenbatekoan. Udalak ez zituen ondoriozko kobrantza eskubideak aitortu. Nahiz obrak egiteko zailtasunak izan, zeinak saldo horiek zuzkitzea eskatuko baitzukeen, diru-sarrera aitortu behar zatekeen.
- Kontuek ez dute Beterri-Buruntza eskualdeko gainerako udalekin izenpetutako hitzarmenetik eratorriko 265.400 euroren konpromisoen berri ematen; ez eta dirulaguntzak arautzen dituzten beste 5 hitzarmenen berri ere. Hitzarmen hauetatik hiruk etorkizuneko aurrekontuen kontura 77.726 euroren kredituak konprometitzen zituzten, Udaltzarak zegozkion konpromiso-kredituak onartu ez zituela.
- Kontuek ez dute 2018ko abenduko Erabakiaren eraginaren berri ematen, zeinak atzeraeraginezko iraupena aitortzen zion 2018ko urtarriletik aurrera lanpostuen balorazioari.
- Balantzeko pasibo ez arrunteko epe luzeko bermeen kontuak barne hartzen ditu 2010 baino lehenago egindako kobrantzak, 224.281 eurorenak; Udalak aztertu egin beharko luke horien egiazko eskagarritasuna.



III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Diru-bilketa erroldak, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergarenak eta aldizkako epemugako tasenak (ura-estolderia, zabor-bilketa, kiroldegiko abonua e.a.), ez zituen horretarako eskumena duen organoak onartu eta ez ziren onartu ondoren argitaratu.
- Udalak 279.195 euroren zerga zorren gerorapen bat eman zuen, nahiz zergadunak ez zuen eskabidean adierazi aurkeztuko zituen bermeak.
- Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga atzerapenez kitatzen da. Honela, bada, 2017ko eskualdaketak ez ziren 2019ra arte kitatu.

III.3 LANGILERIA

- Udalak ez zion publikotasunik eman 2008ko Udaltzaren erabakiari, 2018an indarrean zegoen erabaki arautzailea onartu zuenari, ez eta 2018ko ordainsari igoerari zegozkionari ere. Halaber, ez zitzaion publikotasunik eman 2014ko erabakiari, zinegotziak bileretara joateagatik kalte-ordainen zenbatekoa zehazten zuenari; 2018an 34.240 euro izan da.
- Udalak 2018ko urtarrilean onartu zuen LZren onespina eta 37 plaza berri sortu ziren. GAOn argitaratutako erabakiak ez zituen egindako aldaketak zehazten. Gainera, ez zen justifikatu zegokion balorazio bitartez sortutako lanpostu berrietatik 10i esleitutako osagarriak.
- LZk jasotzen du 6 lanpostu dedikazio berezikoak direla, horien zenbatekoa zehaztu gabe; 2018an lanpostuaren ordainsarien % 10 eta 24 egin zuen. Berebat, komeni da adieraztea dedikazio hori lanaldi luzatuko modalitatean edo erabateko erabilgarritasunekoan esleitzen den. LZk zehazten du lanpostu horietako bati Udaltzaren funtzio osagarriak esleitu zizkiola; ez du, baina, adierazten dagokion osagarriaren zenbatekoa (% 10). Azkenik, Udaltzaren onarturik, langile bati osagarri bat ordaindu zaiola ikusi da, eta datu hori LZn gehitu beharko litzateke.
- Oinarrizko ordainsari kontzeptuengatik aparteko 2 pagetan kitatutako zenbatekoak ez datoz bat araudiak finkatutakoekin.
- Aparteko ordainsarien banakako izendapena alkateak edo eskuordeko zinegotziak onartu behar du. 2018an ordainsari horiek 147.403 euro egin dute eta nagusiki 27 udaltzainei ordaindu zaizkie, gauez eta asteburuetan lan egiteagatik.
- Aldi baterako ezintasunagatik osagarriaren kalkulua aparteko ordainsariak ere barne hartzen ditu; ordea, araudiak kopurua mugatzen du ordainsari finkoetara.
- Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzako ordainsariak, batik bat bizitza aseguruak, 33.292 euro egin dutenak.
- 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden 2001ean eta 2009an mugagabe izendatutako 3 lan-kontratu. Beste 3 langilek lanpostu hutsa betetzeko lan kontratua zuten, 1993, 1994 eta 2000ko urteetan formalizatutakoak; ordez, 2018an ez da existitzen kontratua



eragin zuen plaza. Egoera hauek arautu behar lirateke bitartekotasunez langileak LZko postuetara atxikiz eta gerora, behin betiko estaldura eman lanpostu horiei.

- 2018ko aldi baterako langileen 13 kontrataziotan ikus da 2002ko lan-poltsa bat erabili zela; komeniko litzateke hori berritzea. Gainera, beste udal baten lan poltsa baliatu zen lanpostu huts bat betetzeko; alabaina, prozedura hori ez da balekoa era honetako kontratazioetarako.

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 5 kontratu nagusiak aztertu ondoren -4,7 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.10):

- Guztira 3,8 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan (1, 3, 4 eta 5 espedienteak) esleipen-irizpide orokorrak baliatu ziren, balioztatuko liratekeen alderdiak eta baloraziorako aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A1 akatsa).
- 2,2 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan (1 eta 4 espedienteak) balio-judizioa eskatzen zuten irizpideek formula bidezko balorazioa egiten zutenek baino balio handiagoa zuten; gainera, ez zen adituen nahitaezko batzordea eratu, ez eta berariaz gaitutako atal teknikoa baliatu.(A2 akatsa).
- Guztira 3,2 milioi euroren 3 kontratu gauzatu ziren (1, 4 eta 5 espedienteak) nahitaezkoa den publikotasuna eman gabe. Kasu batean ez zitzaion publikotasunik eman eta beste 2tan ez zen Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu (B1 akatsa).

Alderdi orokorrak

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak erabakigarri izatea saihestearren.
- 4 kontratutan proportzionaltasun soileko formula bat baliatu zen formulak, zeinak murriztu egiten baitzuen faktore honen egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez (1etik 4rako espedienteak). Beste espedienteetan, formulak zigortu egiten zituen batez besteko merkatzearen % 10etik gorako merkatzeak.
- Hobekuntzak balioztatzen diren kontratuetan, komeniko litzateke kontratuan berariaz jasotzea eta horien egikaritzea kontrolatzea (1etik 4rako espedienteak).

III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategiko nahitaezkoa onartu.
- Emakida deialdiak eta ebazpenak GAOn argitaratzen dira; ez, ordea, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean.
- Kirol jarduera arrunt eta ezohikoetarako 13 entitateri guztira emandako 62.850 euroren laguntzak 2004an onartutako agindu batek arautzen ditu, eta ez da 2018an nahitaezkoa den deialdia egin.

- Kirol erakunde batek aurreko atalean zehaztutakoez gain 30.000 euro gehiago jasotzen ditu udal-instalazio bat kontrolatu eta zaintzeagatik, Allurralde Kirol Patronatuak onartutako 2010eko hitzarmen baten arabera; komeniko litzateke hitzarmena gaurkotzea eta gauzatu beharreko jarduerak zehaztea, justifikazioa arautuz.
- Udalerriko 3 ikastetxeek eskola-kirolerako 26.500 euroren laguntzak jaso zituzten, araudi batean jaso behar liratekeen irizpideen arabera, dagozkion urteko deialdiak eginez.
- Itunpeko 2 ikastetxeri 88.946 euroren laguntzak eman zitzaizkien irakasle ez diren langileen kostuak, mantentze-zerbitzuen eta garbiketen gastuak eta gasaren eta elektrizitatearen hornidura finantzatzeko, EAEn aldez aurreko txosten derrigorrezkorik gabe. Bi ikastetxeen justifikazio agiriak barne hartu beharko luke EAetik helburu bererako eskuratutako diru-sarrerak.
- Eskualdeko 2 aldizkari editatzeko emandako 57.100 euroren dirulaguntza justifikatzen duen kontuak ez zuen sarrera eta gastuen zerrendarik jasotzen eta egiaztatzeke agiria dirulaguntzaren zenbatekoa adieraztera mugatzen zen. Komenigarria da gabezia hauek aintzat hartzea dirulaguntzaren hitzarmenean justifikatzeko modua arautzean eta arautzea Udalak publikotasuna emateko baliatu behar dituen espazioak.
- 2018an garapen bidean zeuden herrialdeetan jarduerak garatzeko 126.000 euro eman zitzaizkien 19 elkarteri, araudi erregulatzailerako 10 irizpideetatik 6 aintzat hartu gabe. Ordenantzak ez zituen irizpide horiek neurtzen eta justifikazioari dagokionez, ez zuen eskatzen jarduerak eragindako sarrerak eta gastuak zerrendatzea eskatzen.

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2018an egindako ordainketen % 28,1ek gainditu egin zuela zehaztutako epea (30 egun onartu zenetik).
- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispidea izateari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Informazio ekonomikoari dagokionez, ez dira Udalaren webgunean barne hartzen urteko kontuak eta ez da aurrekontuaren egonkortasun helburuak bete izanari buruzko informaziorik ematen. Halaber, kontratazioari buruzko azken estatistikako datuak 2015ekoak ziren.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	urtea			urtea		
	2016(*)	2017(*)	2018	2016(*)	2017(*)	2018
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	10.200	9.856	9.300	698	672	636
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	12.766	13.391	12.274	873	914	840
Ondare sarrerak (5. kap.)	243	64	145	17	4	10
A. Diru-sarrera arruntak	23.209	23.311	21.719	1.588	1.590	1.486
Langile-gastuak (1. kap.).....	7.775	7.847	7.514	532	535	514
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	11.432	10.820	9.650	782	738	660
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	1.950	1.757	1.835	134	120	126
B. Funtzionamendu gastuak	21.157	20.424	18.999	1.448	1.393	1.300
Aurrezki gordina (A-B)	2.052	2.887	2.720	140	197	186
- Finantza gastuak (3. kap.).....	(34)	(15)	(23)	(2)	(1)	(2)
Emaitza arrunta	2.018	2.872	2.697	138	196	184
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(2.424)	(74)	(260)	(166)	(5)	(18)
Aurrezki garbia	(406)	2.798	2.437	(28)	191	166
Inbertsioen besterentzea (6. kap.)	-	31	169	-	2	12
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	221	94	294	15	7	20
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(3.028)	(1.627)	(2.475)	(207)	(111)	(169)
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(2.807)	(1.502)	(2.012)	(192)	(102)	(137)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)...	(789)	1.370	685	(54)	94	47
Diruzaintza-geldikin likidoa.....	4.551	6.842	8.501	311	467	582
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	3.207	5.396	6.759	219	368	462
Zorpetzea 12.31n	5.351	5.776	6.533	366	394	447

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 6,4 egin dute gora 2016ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** udal egoitza 2017an GFARA eskualdatu izanak eragin du osagai honek % 8,8 behera egin izana; alabaina, berdindu egin da 2018an Allurralde Kirol Patronatuaren tasak udal kontuetara txertatzearekin. Gainera, behera egin dute Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak eta uraren hornidura tasak, zeinak berdindu baitira IOEZaren sarreretan eta Bertxingo gunean sortutako energiaren salmentetan izandako igoerekin.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** Udal egoitzarako foru dirulaguntzak desagertu egin dira 2018an eta hori da idazpuru honek % 3,9 behera egin izanaren arrazoia, nahiz osagai nagusia den Udal Finantzaketarako Foru Funtzak % 7,7 egin duen gora eta Beterri-Buruntza eskualdeko udalak ekarpenak egiten hasi diren 2017an, elkarrekin ekonomia eta enplegua sustatzeko programak garatzeko.



Funtzionamendu-gastuak: behera egin dute osagai guztiak aztertutako aldian, 2016 eta 2018 bitartean % 10,2ko beheraldia izan delarik; hona hemen xehakapena:

- Langile gastuek % 3,4 egin dute behera hirurtekoan, udal egoitzako 14 lanpostuak GFARA eskualdatu izanaren ondorioz. Egitate honek eta erretiroek berdindu egin dituzte 2017 eta 2018ko % 1eko eta % 1,75eko soldata igoerak, hurrenez hurren, eta Allurralde Kirol Patronatuko 4 lanpostuak gehitu izana.
- Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioak % 15,6 egin zuen behera 2016koaren aldean eta nabarmentzekoa da Egoitzarako azpikontrataturik zituzten lanen desagertzea, 2016an 2,1 milioi euroren kostua eragin zutenak.
- Transferentzia eta dirulaguntzak % 5,9 murriztu dira, 2018an Allurralde Kirol Patronatuari egindako ekarpenak desagertzean.

Aurrezki gordina: Erakundearen autofinantzaketa maila neurtzen duen aldaki honek 2016an sarrera arrunten % 8,8 zen eta onera egin du hirurtekoan; honenbestez, Udalak 2018an sarrera arrunten % 12,5 izan zuen finantza zamari aurre egiteko eta inbertitzeko.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: 2016an kontrataturiko 2 mailegu nagusiak 2018ko azaroan hasi ziren amortizatzen eta 2019rako aurreikusitako finantza zamak 683.000 euro egin zituen, sarrera arrunten % 3,1. 2019rako aurrekontu egindako kopurua aintzat hartuta, inbertsioak finantzatzeko aurrezki garbi erabilgarria 1,8 milioi euroena izango litzateke, sarrera arrunten gainean % 8,1 2018an. Zorpetzeak gora egin du aztertutako aldian eta 2018an Udalaren sarrera arrunten % 30,1ekoa izan zen.

Kapital eragiketen emaitza: aztergai izan dugun aldian inbertsioek 7,1 milioi euro egin dituzte, hirurtekoko sarreraren % 10,4 eta nagusiki eta bertako baliabideekin finantzatu dira.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: bikoiztu egin da 2016ko abenduaren 31n zegoena, 2017an eta 2018an sortutako aurrezki garbiak gainditu egin baitu kapitalezko eragiketen emaitza 1,7 milioi euroren zenbatekoan; eta 2016an kontrataturiko maileguak baliatu baitira, 1,5 milioi euroren zenbatekoan.

Ondorioa: Udal egoitza GFARA eskualdatzeak eta beste aldaketa batzuek eragin dute eragiketa arrunten egitura hobea izatea, sortutako aurrezkiaren maila oneratuz. 2018ko abenduaren 31n gastu orokorretarako geldikina hirurtekoko inbertsio garbien parekoa da eta zorpetzea gainditzen du. Zorpetzeari bagagozkio, sarrera arrunten % 30,1 inguru egin du, EAEko udalen batez bestekoa baino handiagoa (% 15,9, 2017an).



Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu Hartze atalak egindako txostenak dio aurrekontuaren egonkortasunaren arautegia bete dela likidazio kontsolidatuari dagokionez, eragiketa ez finantzarioetan superabita izan duelako eta Udalaren zorra kontsolidatutako sarrera arrunten % 34,9 izan delako. Gastuaren arauari dagokionez, gastu zenbagarriak % 0,9 egin zuen behera eta honenbestez, 2018rako finkatutako muga bete zen.

Aurrekontuko foru araudiak agintzen du geldikin positiboak erabili behar direla geldikinen txertaketa, kreditu osagarriak, finantzatzeko eta zorpetze eragiketa berriak saihesteko. 2018ko ekitaldi hasieran Geldikin likidoa 6,9 milioi euroren zenbatekoan finkatu zen eta baliatu zen 2,2 milioi euroren geldikinak txertatzeko eta 3,7 euroren kreditu osagarrietarako, kreditu eragiketa berrietara jo beharrik izan gabe, baina 2016an kontratatutako milioi 1 euroren maileguak baliatuz.

**V. URTEKO KONTUAK**

2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			SARRERAK	ESKUBIDE	KOBR.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.		KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak	A.3	3.883	-	3.883	3.975	3.694	281	102
2.- Zeharkako zergak	A.3	230	-	230	329	294	35	143
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	4.844	-	4.844	4.996	4.376	620	103
4.- Transferentzia arruntak	A.4	12.398	17	12.415	12.275	11.713	562	99
5.- Ondare sarrerak	A.4	151	-	151	145	144	1	96
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.4	-	-	-	169	169	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	270	-	270	294	114	180	109
8.- Aktibo finantzarioak	-	60	5.923	5.983	37	25	12	(*)62
9.- Pasibo finantzarioak	A.9	374	1.000	1.374	1.017	1.017	-	74
SARRERAK GUZTIRA		22.210	6.940	29.150	23.237	21.546	1.691	(*)100

(*) Egikaritzaren % kalkulatzearan, baliatutako geldikinak deduzitu dira, 5,9 milioi euroren zenbatekoan.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			GASTUAK	OBLIG.	ORDAIN.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.		ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak	A.5	7.902	(13)	7.889	7.514	7.508	6	95
2.- Ondasun arrunten eta zerb. kontrat.	A.6	10.909	504	11.413	9.650	7.625	2.025	85
3.- Finantza gastuak	-	53	-	53	23	23	-	43
4.- Transferentzia arruntak	A.7	1.959	561	2.520	1.835	1.396	439	73
6.- Inbertsio errealak	A.6	952	5.888	6.840	2.476	2.071	405	36
8.- Aktibo finantzarioak	-	60	-	60	20	20	-	33
9.- Pasibo finantzarioak	A.9	375	-	375	260	260	-	69
GASTUAK GUZTIRA		22.210	6.940	29.150	21.778	18.903	2.875	75
SARRERAK - GASTUAK					1.459			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORR.	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak	A.8	2.809	(33)	1.700	1.076
Hartzekodunak	-	2.658	(3)	2.624	31
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(30)		



AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	23.237
Obligazio aitortuak.....	21.778
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	1.459
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(30)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	1.429
Finantzaketako desbideratzeak.....	(921)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	1.497
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	2.005

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	ERANSKINA Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 18.1.1ean.....	(*)6.884
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	1.429
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak.....	188
DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 2018.12.31N	8.501
Diruzaintza.....	6.464
Aurrekontuko zordunak.....A.8	2.767
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	4.157
Aurrekontuko hartzekodunak.....	(2.906)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(919)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....A.8	(1.062)
DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 18.12.31N	8.501
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina.....A.4	(1.742)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA	6.759

(*) Allurralde Kirol Patronatuaren Geldikineko 41.686 euro barne hartzen ditu.

ZORPETZEA 18.12.31N	A.9	6.533
----------------------------	------------	--------------

KONPROMISO-KREDITUAK	Euroak milakotan			
	Hasier. aurrek.	Alda-keta	Azken aurrek.	Hitzar-tua
Arrateko frontoia zaharberritzeko lanak (2019).....	618	-	618	(*) -
Guztira			618	-

(*) Kontuek ez dute adierazten 2018ko abenduaren 31n hitzartutako kopurua.



EGOERAREN BALANTZEA 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA		71.355	65.665	ONDARE GARBIA		73.403	66.874
Ibilgetu ez-materiala		594	761	Ondarea		34.938	29.985
Ibilgetu materiala		70.376	64.780	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		36.586	33.669
Lurraren ondare publikoa.....		325	80	Ekitaldiaren emaitza.....		1.283	2.917
Epe luz. finantza inbertsioak		60	44	Jasot. dirulag., emaitz. egotzi gabe		596	303
				PASIBO EZ-ARRUNTA		6.261	5.578
				Epe luzeko zorrak	A.9	5.890	5.237
				Epe luzeko bermeak.....		371	341
AKTIBO ARRUNTA		12.451	10.356	PASIBO ARRUNTA		4.142	3.569
Salgai dauden aktiboak.....		147	147	Epe laburreko zorrak.....	A.9	643	539
Zord. eta kobratz. bst kontu batzuk ..	A.8	1.847	1.711	Kudeak. hartzek. eta beste zor batzuk		2.950	2.378
Epe lab. finantza inberts.....	A.9	3.993	2.324	Administrazioak eta saldo ez-aurrek.....		549	652
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk...		6.464	6.174				
AKTIBOA, GUZTIRA		83.806	76.021	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		83.806	76.021

EKONOMIAREN ETA ONDAREAREN EMAITZA-KONTUA 2018 ETA 2017

Euroak milakotan

	2018	2017
Zergak	4.285	4.065
Tasak.....	4.526	5.088
Hirigintzako sarrerak.....	169	31
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	12.270	13.316
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	292	301
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....	212	298
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	21.754	23.099
Langileria-gastuak	(7.622)	(7.960)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(1.835)	(1.757)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(9.573)	(10.695)
Ibilgetua amortizatzea	(1.716)	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(20.746)	(20.412)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	1.008	2.687
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk.....	21	4
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	1.029	2.691
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	254	226
EKITALDIKO EMAITZA	1.283	2.917





ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Andoingo Udala toki erakundea da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legeak arautzen duena, 57/2003 Legeak, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoak eta 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak aldarazitakoa; baita 2/2016 Legeak ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

Aurreko arategiak udalek dituzten eskumen edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste:segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerbitzu jakin batzuen zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare sarrerak, diru-laguntzak eta kreditu eragiketak.

Ekitaldian ezargarria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 21/2003 Foru Arauak jasotzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 86/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2018ko ekitaldirako aurrekontua 2018ko otsaileko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko martxoaren 1ean eman zen argitara.

Hona hemen, 2018ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kredituen txertaketa	Kreditu gehigarria	Kredituen gaikuntza	Transferentziak		GUZTIRA
				+	-	
4. Transferentzia arruntak	-	-	17	-	-	17
8. Aktibo finantzarioen bariazioa:Geldikina	2.254	3.669	-	-	-	5.923
9. Pasibo finantzarioak	-	1.000	-	-	-	1.000
SARRERAK GUZTIRA	2.254	4.669	17	-	-	6.940
1. Langileria-gastuak	-	7	-	-	(20)	(13)
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	214	349	17	55	(131)	504
4. Transferentzia arruntak	325	190	-	168	(122)	561
6. Inbertsio errealak	1.715	4.123	-	50	-	5.888
GASTUAK GUZTIRA	2.254	4.669	17	273	(273)	6.940

Onartutako 12 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 31 gehitu dute.

2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2019ko maiatzaren 13ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra, berriz, 2019ko irailaren 26ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Ondoren, Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehazten dira:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrera
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	2.128
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	1.039
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	694
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera	114
KAPITULUA GUZTIRA, ZERGA ZUZENAK	3.975
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	329
2. KAPITULUA GUZTIRA, ZEHARKAKO ZERGAK	329
Bertxingo zentralako energia salmenta	292
Zabor-bilketa	874
Ur hornidura eta estolderia	1.661
Kiroldegiko ordainketak, kirol ikastaroak eta kirol aretoen alokairua	714
Musika Eskola	169
Eguneko zentroa	86
Zaharren egoitza	148
Galardi Haur Eskola	139
Etixerako laguntza zerbitzua	81
Kultura zerbitzuak eta Bastero aretoen erabilera	81
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak	14
Jabetza publikoa okupatzeagatik tasa (ibiak, terrazak, azokak etab.)	168
Enpresa hornitzaileek lurra, lur azpia eta hegala okupatzea	275
Aurreko urteetako itzulketak	20
Zigorrak eta udal garabiak ibilgailuak eramatea	88
Premiamendu eta berandutza interesen errekaruak	88
Beste hainbat sarrera	98
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK 3. KAPITULUA GUZTIRA	4.996
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	9.300



A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2018an transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak:

Kontzeptua	Euroak milakotan Zenbat.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	
UFFF: Itunpeko zergetan partaidetza-konturako ordainketak 2018	9.625
Eguneko zentroa	314
Etterako laguntza zerbitzua	199
Enpleguko jarduerak eta sektore estrategikoetakoak	(*)154
Gizarte zerbitzuen mapa	55
Kultur jarduerak, kirola, berdintasuna, gaztedia eta beste	134
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	
Lanbide: langabetuak kontratatzea 2017-2018 - likidazioa	(*)114
Lanbide: langabetuak kontratatzea 2017-2018 - % 55eko aurrerakina	(*)219
Lanbide: Lan-munduratzeko programa (hoteletakoa)	(*)87
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 2018	130
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak: 2017ko osagarria	38
Lanbide-hastapeneko zentroa	162
Musika eskola, 2017-18 ikasturtea	143
Haur eskola 2017-18 ikasturtea	150
Beterri Km0, euskara, bake epaitegia, kontsumoa, merkataritza, berdintasuna e.a.	(*)233
BESTE BATZUK	
Beterr-Buruntza: 5 udalen 2018ko ekarpena, sustapen ekonomikoa eta enplegua	(*)456
Zerga ez itunpekoak, ikastaroetako matrikulak, garapen agentziak e.a.	62
4. KAPITULUA GUZTIRA	12.275
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	
Arrateko frontoia zaharberritzea	217
Elkarlan guneak eta landa-bideak	29
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	
Irisgarritasuna eta Vía Ferrata	48
7. KAPITULUA GUZTIRA	294

(*) Beterri-Buruntza eskualdeko hitzarmenean barne hartutako kontu-sailak.

Zerga itunduetan (Udalkutxa) Udalaren partaidetza kontzeptuan erregistraturiko diru-sarrerak 2018ko ekitaldiko konturako ordainketei dagozkie. Urte horretako 569.951 euroren likidazio positiboa 2019ko otsailean onartu zen eta Udalak 2019ko diru-sarrera modura erregistratu zuen.

Udalak kobratu eta 2019ko sarrera modura aitortu zituen 2018ko azken hiruhilekoko etxez etxeko laguntzaren dirulaguntzak eta 2018ko gizarte larrialdietarako laguntzen ordainketa osagarria, guztira 81.995 euroren zenbatekoan.

Udalak EAEk eskuordetuta oinarritzko lanbide heziketa ematen du, 2019-20 ikasturtera arte indarrean egongo dena, eta EAEtik 2018an 162.309 euro jaso ditu.

Ondotik, Udalak 2018ko abenduaren 31n Geldikin erabilgarria kalkulatzeko baliatutako finantzaketako desbideratzeak xehakatu dira:

	Euroak milakotan
Kontzeptua	Zenbat.
Norbanako baten herentzia (2016 eta 2017an 3. eta 8. kap. sarrerak)	515
Beterri-Buruntza: 5 udalen ekarpenak	452
Arrateko frontoia zaharbertitzeko GFaren dirulaguntza	217
Hirigintzako aprobetxamenduek eragindako sarrerak 2017 eta 2018an	200
GFaren 2014ko hitzarmena:GI 7322 eskualdatzea-hobekuntza lanak	133
Gizarte zerbitzuen mapa, dirulaguntza.....	69
Beste txiki batzuk.....	156
GUZTIRA	1.742

2018an Arrateko frontoia zaharbertitzeko lanen egikaritzari dagokionez, sarrera modura aitortutako Aldundiaren dirulaguntza oso-osorik sortua zegoen eta ez zegoen finantzaketaren desbideratzerik. Hirigintzako aprobetxamendu bidez eskuratutako baliabideak udal ekipamenduen inbertsioetan erabili behar dira eta Udalak 2018an mota horretako inbertsioak egin ditu; honenbestez, ez da eskagarria etorkizuneko lanetarako geldikinak izatea. Beste hainbeste gertatzen da oinordekotzarekin, udaleko gizarte zerbitzuen arloko helburuetarako baliatu behar baita. Adierazitako hiru alderdi horiek aintzat hartuta, finantzaketako desbideratzeak 932.576 euroan murriztu behar lirateke. Nahiz Geldikina kalkulatzeko aintzat hartzen den diruz lagundutako jarduera egiaz gauzatu izana, ez da hori kontuan hartzen ondare kontabilitatean; izan ere, duten xederako erabili gabe dauden dirulaguntzen saldo hartzekodun bat barne hartu behar du: 2018ko abenduaren 31n 809.276 euro.

Beterri-Buruntza

Udalbatzak 2016ko azaroan hitzarmen bat izenpetu zuen Beterri-Buruntzako eskualdeko beste 5 udalekin, ekonomia eta enplegua sustatzeko programetan kolaboratzeko. Hitzarmenak udal bakoitzeko langileen dedikazioa balioztatu zuen eta egin beharreko ekarpen ekonomikoak zehaztu zituen:

	Euroak milakotan			
	2017	2018	2019	2020
Andoaingo Udala: esleitutako langileak	74	74	74	74
Andoaingo Udala: ekarpen ekonomikoa	66	69	72	75
5 udaletan esleitutako langileak.....	102	102	102	102
5 udaletan ekarpen ekonomikoa	445	456	467	479

Erabaki zen Udalak bere gain hartuko zituela gauzatu asmo ziren jardueren sarrerak eta gastuak. Hona hemen hitzarmen honen sarreren eta gastuen xehakapena 2017an eta 2018an:



	Euroak milakotan			
	2017		2018	
	Aurrek.	Exekuzioa	Aurrek.	Exekuzioa
Lanbideren diru-lag. 2017-18 eta 2018-19ko Enplegu-planerako	463	436	460	219
Bestelako dirulaguntzak	141	201	138	219
5 udalen ekarpenak.....	445	445	456	456
Andoingo Udalaren ekarpena.....	66	66	69	69
SARRERAK GUZTIRA	1.115	1.148	1.123	963
Andoingo Udaleko langileen kostua	188	222	241(*)	164
Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa	334	137	87	57
Transferentziak eta dirulaguntzak.....	593	603	745	452
GASTUA GUZTIRA	1.115	962	1.073	673
Likidazioa	-	186	-	290

(*) Enplegu-planeko kontratazioak Programa hau kudeatzen duen Udaleko langileria barne hartu gabe.

2017ari buruzko datuak onartzeke dagoen 2017ko likidaziotik eskuratzen dira. 2018ko datuak 2018ko Oroitidazkian barne hartutako behin-behineko datuak dira, txosten hau idatzi dugun datan likidaziorik ez dagoela.

Ondare-sarrerak eta inbertsioen besterentzea

Ondare-sarrerak eta inbertsio errealen besterentzeak modu honetan xehakatzen dira:

Kontzeptua	Euroak milakotan	
		Zenbat.
2 harrobien kanona.....		89
Pisuen eta garajeen alokairua (Bastero).....		39
Beste txiki batzuk		17
ONDARE-SARRERAK 5. KAPITULUA GUZTIRA		145
Etxeberrietan eraikigarritasuna gehitzeagatiko aprobetxamendua.....		169
INBERTSIOEN BESTERENTZEA 6. KAPITULUA GUZTIRA		169



A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Gastu kapitulu honen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Gastua 2018	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Langileak 18.12.31
Korporaziokideak (alkatea eta 6 zinegotzi).....	229	-	7
Behin-behineko langileak.....	34	2	1
Funtzionarioak.....	4.914	142	(a) 136
Langile lan kontratudun finkoak	-	5	-
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	592	-	(b) 21
Ordainsarien guztizko partziala.....	5.769	149	165
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	1.503		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak: Elkarkidetza	119		
Erretiro aurreratuari sariak (10,5 hileko, 2 funtzionarioi)	77		
Aseguruak eta prestakuntza	46		
GUZTIRA	7.514		

(a) Honako hauek barne hartzen ditu: karrerako 62 funtzionario; lanpostu hutsa betetzen duten bitarteko 59 funtzionario; programako bitarteko 3 funtzionario; eta 12 langile lanpostuetako titularren bajak, oporrak eta lanaldi murrizketak betetzen.

(b) Bitarteko 2 funtzionario lanpostu hutsak betetzen; 12 kontratu urteko obra/ordezkapenerako (Lanbideko Enplegu-planeko 4); eta LZn lanposturik ez duten aurreko urteetako 7 lan kontratu.

Langileen ordainsariak % 1,75 egin zuten gora, 2017an indarrean zeudenen aldean.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatzen ditu eta 2018an 174.221 euroren kostua eragin dute.

2018an 76.877 euro ordaindu zitzaizkien erretiroa 2 urte aurreratu zuten 2 langileri. Araudiak pizgarri horiek aurreikusten ditu Udalak 1998an onartu zuen Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa baten barruan. Programak langile guztientzako pizgarriak aurreikusten ditu, uko/baja egiteagatik (59 urte edo gutxiago) edo erretiro aurreratua hartzeagatik (60-65 urte), eta, uko egitearen kasuan, kontuan hartzen dira Udalean lanean egindako urteak. Uko eginez gero, pizgarri horien gehieneko zenbatekoak urtebetekoak izango dira, eta erretiro aurreratua 60 urterekin hartzen bada, 2 urtekoak.

Altak

2018ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kop.
Bitarteko funtzionarioak (67 langile)	91
Titularra ordeztea aldi baterako ezintasun, lizentzia, baimenengatik e.a.....	57
Programa edo egitekoen metatzea	9
Lanpostu hutsaren estaldura	25(*)
Aldi baterako lan kontratupekoak (19 langile)	29
Obra kontratua.....	9
Ordezkapenatarako bitarteko kontratua	19
Errelebo kontratua.....	1
GUZTIRA	120

(*) Programako 11 funtzionario eta aldi baterako lan kontratudun 8 langile barne hartzen ditu, guztiak ere 2011 baino lehenago izendatu/kontratuak.



A.6 ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOETAN GASTUAK

2. kapituluaren erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; ondotik xehakatu ditugu kontzeptu esanguratsuenak:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Alokairuak	185	-
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	717	6
Espaloiak, bide publikoak, parkeak eta lorategiak	81	-
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	105	2
Makineria, instalazioak eta beste (eskailera mekanikoa, kiroldegia eta beste)	251	-
Ekipo informatikoak (IZFEko kuotak eta beste)	171	2
Hiri-altzaria, estolderia, uren sarea, argiteria	109	2
Bulegoko materiala	45	-
Hornidurak	1.292	20
Eraikinetako energia elektrikoa eta argiteria publikoa	390	-
Gipuzkoako Uren Partzuergoa: Azpiegituren kanona	384	-
